

# bat-batekotasuna hemen eta munduan



barrenet 16. ikastunitatea

2. maila

**irakaslearena**

## EGILEAK

**Proiektuaren arduraduna:** **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)

**Koordinatzaile didaktikoak:** **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)  
**Sabin Zabala** (HABEko teknikaria)

**Parte-hartzailea:** **Jone Aboitiz** (AEK)

**Errealizazio didaktikoa:** **Xabier Elortza** (HABEko teknikaria)  
**Alex Mungia** (HABEko teknikaria)  
**Agurtzane Maiz** (HABEko teknikaria)

(c) HABE 2003.

HABE erakundeak eskerrak ematen dizkio AEKri materialgintza-proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Halaber, esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Iñaki Gozalo** eta **Jose txo Sastre**.

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

- -Goizean Behin irratsaioa. *Ramon Agirrerri egindako elkarrizketa*. Euskadi Irratia.01-12-18
- Hitzetik hortzera saioa. *Bertsolariak eta garrotineroak* erreportajea. Euskal Telebista 2001
- Gonzalo, J. eta Oizartzabal, A.: *Bertso Eguna 2001*ari buruzko erreportajeak. Euskaldunon egunkaria 2001eko abendua
- Urrutikoetxea, U.: *Zer da emakumeek gehien maite dutena?* Bertso-tramari buruzko erreportajea. Euskaldunon Egunkaria 2001eko urria
- Amuriza, Xabier: *Bat-bateko bertso plazak* artikulua. Bertsolari aldizkaria. 2001Negua

**AURKIBIDEA****1. SARRERA**

- 1. Irakaslearentzako oharrak .....3
- 2. Ikastunitatearen ibilbidea.....4
- 3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak .....5

**2. ATAZAK**

- A Ataza:** Garrotineroak eta beste.....6
- B Ataza:** Nola liteke? .....9
- C Ataza:** Bertsolari zein antzezle .....12

**3. ERANSKINAK**

- 1. Ikaslearen ebaluazio-orria .....16
- 2. 1. Bideo-pasarte: Inprobisatzaileak hiru hizkuntzatan .....17
- 3. 2. Bideo-pasarte: Josu Goikoetxea.....18
- 4. Egunkariako kronika .....21
- 5. 3. Bideo-pasarte: Maialen Lujanbio .....22
- 6. 4. Bideo-pasarte: Tomasita Quiala .....23
- 7. Tekniken marrazkiak .....24
- 8. 5. Bideo-pasarte: Inprobisatzeko teknikak .....25
- 9. "Bertsolari" aldizkariko artikulua .....27
- 10. 6. Bideo-pasarte: Ramon Agirrerri elkarrizketa .....28
- 11. Bertso tramak. Egunkariako artikulua .....29

**BIDEO-PASARTEAK**

A ataza	B ataza	C ataza
1. b-p: 1.22.11	5. b-p: 1.33.59	6. b-p: 1.42.32
2. b-p: 1.25.01		
3. b-p: 1.32.09		
4. b-p: 1.32.47		

# 1. SARRERA

## 1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Ikastunitate honetan, bertsolaritza eta beronen ezaugarri nagusia den bat-batekotasuna ezagutzeko aukera izango dute ikasleek.

Helburua ez da ikasleak bertsogintzan trebatzea, bertso munduaren ezaugarri orokor batzuk ezagutzea eta gehiago jakiteko irrika piztea baizik.

Ikastunitate honen asmoa gure herrian hainbeste mendetan bizirik iraun duen transmisio eta komunikazio bide honek oraindik ere gure herrietako auzoetan, antzokietan eta plazetan bizirik jarraitzen duela erakustea da.

Horretaz gain, bat-batekotasunaren kultura hau munduko beste lurralde batzuetan ere badela ikusteko aukera izango dute ikasleek.

Ikastunitatea laburtzua da, baina gai honi buruzko interesa pizteko nahikoa, gure iritziz.

Gero, bakoitzak sakondu ahal izango du, nahi izanez gero, Euskal Herriko edozein txokotan, telebistan zein irratian bertsoak entzuteko parada izango baitu. Bertsolaritzaren inguruko jakin mina pizten bazaie, primeran!


A atazan Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpora ere inprobisatzaileak badirela ikusiko dugu. Horietatik batzuk euren hizkuntzan kantatzen entzungo ditugu. Horretarako, ETB1eko "Hitzetik Hartzera" programatik hartutako saio bereziak erabiliko ditugu hizpide. Eta batez ere, Bilbon egindako saio berezi baten inguruan arituko gara: Kataluniako garrotineroek eta Euskal Herriko bertsolariek egindako saio baten inguruan. Esperientzia berezi horren inguruko inpresioez eta iritziez hitz egingo dugu.

B atazan bertsolariek bat-bateko saio bat nola egiten duten ikusiko dugu. Bat-batean eta segundotan egiten duten saioak dituen trukuak ezagutuko ditugu. Horretarako, ETB1ek bertsolaritzari buruz egindako erreportaje bateko pasarteak, Elhuyarren "Bertsoen Mundua" CD-ROMetik hartutako informazioa, "Bat-bateko bertsolaritza" liburutik hartutako pasarteak eta hiztegi entziklopedikoetatik ateratako informazioa baliatuko ditugu.

C atazan bertso saio-moten arteko desberdintasunak ezagutuko ditugu. Eta bertso saio bat eta antzezlan baten artean dauden aldeez hitz egingo dugu. Gai honetaz aritzeko, berriz, "Bertsolari" aldizkariko artikulua bat eta Ramon Agirre aktorearen entzungai bat izango ditugu eskuartean.

NARRAZIOAK ETA BALORAZIOAK	· Ikusitako ekitaldi edo ikuskizun baten kontaketa; deskripzioa eta balorazioa egiteko kronika bat egingo dute. Horrela, bertso saio bat zer den eta zein inpresio jaso duten kontatzen trebatuko dira.
AZALPENAK	· Bertsolariek bat-batean aritzeko erabiltzen dituzten tekniken inguruko azalpenak entzun, eta azalpenak birkontatzeko prestaketa egingo dute. Azalpenak xehetasun gehiagorekin emateko eta aberasteko irakurritako informazioa erabiliko dute.
DESKRIPZIOAK ETA KONPARAZIOAK	· Gaur egun ia edozeren inguruko iritziak eskatzen dizkigute, bai kalean, bai lagunartean, bai telefonoz, internetez... Azken medio horretan lehiaketa mordo bat ere egoten da, eta horietako bat ezagutuko dugu. Iritziak ematen trebatuko dira.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA



### 3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

#### LEXIKOA

- Bertsolarien artean, eta oro har, bertsolaritzan erabiltzen den hiztegia ezagutzea.

#### MINTZAGAIAK

- Ahozko bat-batekotasuna hemen eta munduan, euskaraz eta beste hizkuntzetan.
- "Hitzetik Hortzera" saioa.
- Bat-bateko tekniken magia edo dohaina.
- Bat-batean aritzeko tekniken zailtasuna edo bitxikeria.
- Bertso saio-motak.
- Bertso saioen eta antzezlanen arteko aldeak.

#### ELKARRERAGINA

- Gaian murgiltzen hasteko bideo-pasarteak ikusi eta bertsolaritzaz eta bat-batekotasunaz hitz egin.
- Galderei erantzunez bat-batekotasunaz zer dakiten esan.
- Aurrez idatziz prestatutako kontaketa eta balorazioa elkarri azaldu ahoz.
- Ahozko azalpenetan erabili dituzten hizkuntza formez hitz egin.
- Aukera ezberdinak irakurrita bat-batean aritzeko tekniken inguruan hipotesiak egin.
- Bideoan entzundako tekniken informazioari irakurritakoa txertatu eta taldean horren azalpena egin.
- Bertso saioen ezaugarriak irakurri eta taula baten atalei jarraituz antzezlanarekin alderatu taldean.

#### KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Gidoiari jarraituz bideoan ikusitakoaren eta entzundakoaren inguruko iritzia idatzi eta azaldu.
- Kronika bat idatzi ikusitakoa kontatuz eta Egunkariakoarekin alderatu.
- Mapa semantikoaren laguntzaz entzungo duten azalpenaren gainean hipotesiak egin.
- Entzundakoari irakurritako informazioa txertatu eta ahozko azalpena prestatu.
- Irakurritakoaren informazioarekin mapa semantikoa osatu eta "egia ala gezurra" ariketarako baieztapenak prestatu.
- Antzerkiaren ezaugarriak eta irakurritako bertso saio-moten ezaugarriak alderatu.

#### GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- Idatzizko narrazioetan aipua txertatzeko komatxoaren erabilera.
- Komaren idaztarauak.
- Narrazioetan denbora-antolatzaileak noiz eta nola erabili.

#### EUSKAL KULTURA / GIZARTEA

- Euskal Herrian hainbeste urtetan iraun duen ahozko tradizioa ezagutu eta zein ezaugarri orokor dituen aztertu. Oro har, bertsolaritza oraindik bizirik dagoela ikusi.

**Helburuak:**

- Telebistako erreportaje bat ikusi eta ikusitakoaren kronika bat idaztea.
- Iritzia emateko hizkuntza formei erreparatzea.

**Zertan den:**

Euskal Herriko bertsolari bat eta kanpoko inprobisatzaileak bideoan kantatzen ikusiko ditugu gaien murgiltzen hasteko. Beste bideo-pasarte batean "Hitzetik Hortzera" programatik grabatutako bertso saio berezia ikusi, eta ikusitakoaren gaineko kronika bat idatzi. Ondoren ikusitakoaren iritzia emango dute, horretarako erabili behar dituzten hizkuntza formei erreparatuz.

Bukatzeko, "Hitzetik Hortzera" saioko beste pasarte batean Kubako inprobisatzaile baten azalpena entzun, eta gaiaren inguruan hitz egingo dute.

**PROZEDURA:****1****Atazaurrea: gaien murgiltzen hasteko bideo-pasarte ikusi eta bertsolaritzaz eta bat-batekotasunaz hitz egin. (10´)**

- 1. bideo-pasarte (2. [eranskina](#)) ikusiko dugu gaiari ekiteko. Bideoan hiru hizkuntzatan arituko dira inprobisatzaileak: katalanez, gaztelaniaz eta euskaraz, baina ez diegu ikasleei inprobisatzaileak direnik esango.
- Galderei erantzunez, eta talde txikitik jarrita, batzuen eta besteen kantatzeko modua alderatuko dute.
- Azkenik, ematen zaizkien aukerak irakurri, eta ea kantuan ari diren pertsonen zaletasuna, dohaina edo dena delakoa zer den asmatzen duten.

**Ataza: bideo-pasarte bat ikusi eta ikusitakoaren kronika prestatu eta idatzi. (30´)**

- 2. bideo pasarte (3. [eranskina](#)) ikusiko dugu, "Hitzetik Hortzera" programako erreportaje bat. Bideoan bertso saio berezi bat izango dugu ikusgai: Kataluniako inprobisatzaileak, garrotineroak, eta Euskal Herrikoak, bertsolariak, txandaka, bakoitza bere hizkuntzan, bat-batean jarduten ikusiko ditugu.
- Jarraian, binaka jarri, eta ikusitako bideoaren datu batzuk bilduz fitxa bat osatuko dute.

**IKASLEAREN LIBURUXKAN**

1. Zer ikusi dugu:
  - Protagonistak nortzuk ziren?
  - Nongoak ziren?
  - Zein esperimendu egin dute?
  - Nolakoak ziren musika-tresnak?
  - Zein izan da kantatzeko hurrenkera?
  - Errimatzen al dute?
2. Gustatu al zaizu? Zehaztu zer eta zergatik.
3. Ulertu al duzu?
4. Zerk lagundu dizu ulertzen?

5. Esperimentu hau egin zen aretoan nolako giroa zegoen?  
- Entzule-motak  
- Aretoa nolakoa da, non dago ...

▪ Gero, ikusitakoaren kronika bat idatziko dute. Kronikan bideoan ikusitako ekitaldia deskribatuko dute. Aurrez binaka egin duten fitxan aipatu diren datuak, iritziak eta balorazioak ere txertatuko dituzte.

**Feedbacka: Egunkariako kronika eta norberak egindakoa alderatu. (15´)**

- Bilboko saio berezi hori egin eta hurrengo egunean Egunkarian azaldu zen kronika irakurriko dute.
- Binaka elkartu, eta Egunkariako kronika eta beraiek idatzitakoa alderatuko dituzte: zer egin duten berdin eta zer ez aztertuko dute. (4. eranskina) Nahi izanez gero, aldaketak ere egin ditzakete.

### IKASLEAREN LIBURUXKAN

- Ideia berak aipatu al dituzu zuk?
- Testuari egitura bera eman al diozu? Aipatutako ideiak zein hurrenkeraren arabera jarri dituzu?
- Deskripzioak egin al dituzu?
- Adjektibo asko erabili al dituzu? Eta kazetariak?
- Kantatu ziren bertsoen aipamenik egin al duzu? Eta kazetariak?
- Lehenaldian idatzi al duzu?
- Balorazio bera egin al duzue?
- Eta izenburua jartzeaz gogoratu al zara?

**Gramatika eta diskurtsoa: iritzia eta balorazioa ahoz eman. (15´)**

- Ondoren, zer ikusi duten kontatu, ikusitakoaren balorazioa egin eta iritzia emango dute ahoz: gustatu zaien edo ez... Horretan laguntzeko gidoi bat izango dute.

### IKASLEAREN LIBURUXKAN

#### GALDETEGIA

- Gustatu al zaizue saioa?
- Bitxia izan al da euskaraz eta katalanez, txandaka, kantatzen entzutea?
- Zein balorazio egiten duzue esperientzia honetaz?

## 2

**Ataza: bideo-pasarte bat ikusi eta bertan entzundako balorazioa eta ikasleek egin dutena alderatu. (10´)**

- 3. bideo pasartea (5. eranskina) ikusiko dugu. Bertan Maialen Lujanbio bertsolariak esperientzia honi buruzko iritzia emango du labur.
- Ondoren, Maialenek egindako balorazioa eta ikasleek beraiek egindakoa alderatuko dituzte.
- Maialenen balorazioan zein hizkuntza forma erabili diren aztertuko dute. Horretarako, bideoko pasartearen transkripzioa izango dute, eta hutsuneak bete beharko dituzte aukeran dituzten hizkuntza formak erabiliz.



- Ikasleek beren ahozko balorazioa egiterakoan horietatik zein forma erabili dituzten edo besteren bat erabili duten aztertuko dute.

### IKASLEAREN LIBURUXKAN

- Ideia berak aipatu dituzue?
- Hizkuntza forma horiek erabili dituzue zuen ahozko balorazioan? Zein?
- Zuek beste formaren bat erabili al duzue? Zein?
- Agertu al da ezagutzen ez duzuen formarik? Zein?
- Eta kronikan horietakoren bat erabili al duzue?

### Atazaostea: beste bideo-pasarte batean Kubako inprobisatzaileen irudiak ikusi eta zer iruditu zaien esan. (5´)

- Azkenik, Kubako inprobisatzaileek eta bertsolariek Zarautzen egindako beste saio bateko irudiak ikusiko ditugu 4. bideo-pasartean (6. eranskina). Bertan Tomasita Quialak bat-batean aritzeko duen moduz esandakoa eta egindako aurkezpena entzungo dugu. Horretarako, "Ba al zenekien..." galtegia erabiliz zer iruditu zaien adieraziko dute.

### IKASLEAREN LIBURUXKAN

#### BA AL ZENEKIEN...

- Inprobisatzaileak unean bertan pentsatzen duela zer kantatu?
- Inprobisatzaileak Euskal Herrian ez ezik munduko hainbat kulturatan ere badirela? Esate baterako: Mallorcan, Kuban, Brasilen eta Japonian, besteak beste.
- Kubako inprobisatzaileek beti 10 lerroko bertsoak kantatzen dituztela, eta horregatik esaten zaiela "decimistak"?
- Kataluniako inprobisatzaileak "garrotineroak" direla, kantatzen duten bertso moldeari "garrotini" deitzen zaiolako?
- Euskal Herriko inprobisatzaileek bertsoak kantatzen dituztela eta bertsolariak esaten zaiela?
- Euskal Herriko bertsolari txapelketa lau urtez behin egiten dela, eta azkeneko hiru txapelak Andoni Egañak irabazi dituela?
- Ba al zenekien ETB1ean bertsolaritzari buruzko saio bat ematen dutela astero?

- Ondoren, esan ikasleei horrelako saioak ETB1eko "Hitzetik Hortzera" programan astero dituztela ikusgai. Saioa ezagutzen duten eta inoiz ikusi duten galdetuko diegu. Hala ez bada, eta gustatu bazaie, etxean saio gehiago ikusteko aukera badutela esango diegu.

### Helburuak:

- Telebistako erreportajeaz azalpenak eta xehetasunak ulertzea.
- Ulermen estrategiak lantzea.
- Denbora-antolatzaileak lantzea.

### Zertan den:

Bat-batean aritzea erraza edo zaila iruditzen al zaien galdetu. Ondoren, emango zaizkien aukerak irakurrita bertsolariek bat-batean aritzeko erabiltzen dituzten tekniken inguruko hipotesiak egingo dituzte. Jarraian, tekniken inguruko azalpenak entzun, eta mapa semantikoa aukerak egingo dituzte. Binaka jarrita, mapa semantikoa adostuko dute. Bukatzeko, talde txikitara tekniken inguruko horma-irudi bat egingo dute gelan jartzeko.

## PROZEDURA:

### Atazaurrea: bertsolariak bat-batean aritzerakoan erabiltzen dituen tekniken inguruko hipotesiak egin. (15')

- Bat-batean aritzeari buruz zein iritzi duten adieraziko dute labur-labur: erraza edo zaila iruditzen zaien, ...
- Gero, atazan ikusiko dugu bertsolariek bat-batean aritzeko zein teknika erabiltzen dituzten. Baina aurretik, hipotesiak egingo dituzte.
- Horretarako, teknika zerrenda bat izango dute aukeran. Zerrenda horretatik, beren ustez, bertsolariek erabiltzen dituzten lau teknikak zeintzuk diren esan beharko dute.

## IKASLEAREN LIBURUXKAN

<ul style="list-style-type: none"><li>• Errima-hitzak bilatu</li><li>• Aurretik ikasitako bertsoa gogoratu</li><li>• Lehen beste bertsolariak erabili duen bertsoaren bukaera errepikatu</li><li>• Bertsoaren bukaera edo errematea pentsatu</li><li>• Bertsoaren lehenengo hitza asmatu</li><li>• Kopla zaharrak gogoratu</li><li>• Purua piztu</li><li>• Lehenengo, orri batean idatzi pentsatutakoa, eta, gero, hori kantatu</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Doinua pentsatu</li><li>• Gaiaren inguruko ideiak pentsatu</li><li>• Errima-hitzekin esaldiak osatu</li><li>• Bertsoaren silaba guztiak kontatu</li><li>• Doinua ikasten hasi</li><li>• Burua jaitsi eta mikrofonoari bi eskuekin heldu</li><li>• Gaiari erantzun</li><li>• Euskal kanta baten doinua aukeratu</li><li>• Jendeari begiratu eta ideiak eskatu</li></ul>
---	--

- Aukeratutako lau tekniken artean ustezko ordena zein den ere zehazteko eskatuko diegu.
- Ondoren, marrazkien bidez erantzunak emango dizkiegu (7. eranskina).

**Ataza: mapa semantikoa hipotesiekin alderatu eta bideoa ikusi ondoren, erantzun egokia aukeratu. (25´)**

- 5. bideo-pasartea ikusi aurretik emango zaien mapa semantikoan, argi ikusten da bertsolariak inprobisatzeko erabiltzen dituen oinarritzko lau teknikak zeintzuk diren. Mapa semantiko horretan telebistako aurkezleak emango dituen azalpenen inguruko hipotesiak egingo dituzte. Beren ustez, bakoitzean adierazpen egokiena dena aukeratu beharko dute. Kasu batzutan aukera bat baino gehiago ere badirela ohartarazi ikasleei.

**IKASLEAREN LIBURUXKAN**

1. Zure iritziz, bertsolaritza zer da?

- inprobisazioa
- ahozko tradizio zaharra
- adierazpidea
- pertsona helduen eta aitona-amonon zaletasuna

Bideoan zer dela esan du? .....

.....

2. Zure iritziz, nolakoa izaten da bertsoaren bukaera?

- bertsoaren azken esaldia bertsoaren zatirik garrantzitsuena da
- bukaera da bertsoaren mamia, bertsoari indarra emango diona, distira emango dion errematea
- bertsoaren bukaeran ez da errimarik izaten
- bertsoaren azken esaldiko azken hitza da errima-hitza

Bideoan zer dela esan du? .....

.....

3. Eta errimarena, nola antolatzen da?

- lehendabizi esaldiak pentsatzen dira eta gero errimak
- lehendabizi errimak pentsatzen dira, eta gero errima bakoitzarekin esaldiak osatzen dira

Bideoan zer dela esan du? .....

.....

4. Erreparatzen al zaio metrikari, zure ustez?:

- ahapaldi-mota bakoitzak bere metrika izaten du
- doinuak berak, nota bakoitzeko silaba bat eskatzen du normalean
- doinuak eta metrikak ez dute zerikusirik bertsoan

Bideoan zer dela esan du?

.....

.....

5. Aukeratu, zure ustez, zein den bat-batean aritzeko ordena:

1. Gaiaren tratamendua pentsatu, doinua aukeratu, bertsoaren bukaera pentsatu, errimaren gurgipila martxan jarri eta bertsoa kantatzen hasi
2. Doinua aukeratu, gaia entzun, gaiaren tratamendua pentsatu, errimak pentsatu, errima bakoitzarekin esaldiak sortu, bertsoaren azken bi lerroak edo bukaera pentsatu eta bertsoa kantatzen hasi

3. Bertsoaren errima-hitza pentsatu, errima bakoitzarekin esaldi bat pentsatu, esaldi bakoitzaren silabak kontatu eta doinua erabaki

Bideoan zer dela esaten du? .....

- 5. Bideo-pasartea ikusi (8. eranskina)
- Berriro galdetegia irakurri eta, nahi izanez gero, aldaketak egin.
- Ondoren, binaka, atazaurrean egindako hipotesiekin gertu ibili diren edo ez baloratuko dute.

**Feedbacka: binaka, mapa semantikoko aukera egokiak adostu. (10´)**

- Berriro binaka elkartu, eta mapa semantikoan egin dituzten aukerak alderatu. Bideoan esan dutena kontuan hartuta, erantzun egokiak zeintzuk diren adostu.
- Ondoren, MAPA SEMANTIKOAK ulermen estrategia bezala balio izan al dien adieraziko dute denen artean. Horretarako galdera batzuei erantzungo diete.

## IKASLEAREN LIBURUXKAN

### LAGUNGARRIA IZAN AL DA

**- Bideoko azalpena entzun aurretik, beroien hipotesiak irakurri ditugu.**

· Lagundu al dizu horrek gero bideo-pasartea errazago ulertzen?

· Zuk etxean telebista ikusten duzunean, hipotesiak egiteko ohiturarik ba al duzu?

· Zergatik?

· Hemendik aurrera hipotesiak egiteak lagunduko dizula uste al duzu?

**Gramatika eta diskurtsoa: denbora-antolatzaileak. (15´)**

- Bideo-pasarteko kontalariak erabili dituen denbora-antolatzaileak aukeran eman eta hutsuneetan jarri beharko dituzte. Liburuxkan bertan dute bideo-pasartearen transkripzioa.
- Ondoren, ikasle bakoitzak bere azalpenean zein erabili dituen esanez arbelean zerrenda bat idatzi.

**Atazaostea: horma-irudi bat egin gelan itsasteko. (15´)**

- Launaka edo talde txikitan, bertsolariek erabiltzen dituzten teknikak zeintzuk diren azaltzen duen horma-irudi bat prestatu gelan jartzeko. Horretarako, mapa semantikoko baieztapenak edo horien berridazketak erabil ditzakete.

## Helburuak:

- Bertso saio-motak ezagutzea, aurre-ezagutza baliatuz.
- Irakurritako informazioa erabiliz bertso saio-motak deskribatzea idatziz.
- Ezaugarriak ulertzeko estrategiak lantzea.
- Bertso saio zein antzezlan bat idatziz deskribatzea eta euren arteko aldeak adieraztea.

## Zertan den:

Gidoi bati jarraituz eta irudiei begiratuta, antzezlan bat eta bertso saio baten arteko aldea zein izan daitekeen pentsatu, eta hipotesiak egingo dituzte. Ondoren, Xabier Amurizaren artikulua irakurri, hipotesiak egiterakoan asmatu duten ala ez adierazi eta mapa semantikoa osatuko dute. Jarraian, antzezlan baten ezaugarriak baliatuz deskripzioa eta konparazioa prestatu eta idatzi. Bukatzeko, antzezlan baten antza gehien duen bertso tramari buruz hitz egingo dute.

## PROZEDURA:

1

### Atazaurrea: bertso saioen ezaugarrien inguruko hipotesiak atera argazkiak erabiliz. (10´)

- Hainbat bertso saiotako irudiak izango dituzte. Irudietako bat, ordea, ez da bertso saio batena, antzezlan batena baizik. Ea konturatzeko diren.
- Gero, bertso saioen ezaugarriak zeintzuk diren ikusiko dugu. Baina aurrez, bertso saioak nolakoak diren eta beroien ezaugarriak ezagutzen duten galdetuko diegu.
- Horretarako, binaka jarriko dira eta, nahi izanez gero, prestatu den ondorengo gidoiari jarrai diezaiokete aurre-ezagutza baliatzeko.

## IKASLEAREN LIBURUXKAN

1. Zeintzuk dira bertso saio baten ezaugarriak? ..... ..... ..... .....	..... ..... .....
2. Zein lekutan egiten dira bertso saioak? ..... ..... .....	4. Bertso saioetan beti izaten al dira gaitzartzaileak, bertsolariak, eta bertsozaleak edo entzuleak? ..... ..... .....
3. Zeintzuk dira bertso saio-mota berriak? ..... .....	5. Besterik: ..... ..... .....

**Ataza: irakurgaiaren mapa semantikoa osatu eta "egia ala gezurra" ariketa prestatu. (15´)**

- "Bertsolari" aldizkariko irakurgaia irakurri (9. eranskina); Xabier Amuriza bertsolariak bertso saio-moten inguruan idatzitako artikulua bat da. Eta ondoren, hipotesiak egiterakoan asmatu duten ala ez hitz egingo dute.

### IKASLEAREN LIBURUXKAN

<b>BERTSO ENTZULEEN PAPERA</b>	<hr/> <hr/> <hr/> <hr/>
<b>BERTSO SAIOAK EGITEKO LEKUAK</b>	<hr/> <hr/> <hr/> <hr/>
<b>BERTSOLARIEN BATEZ BESTEKO ADINA</b>	<hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/>

- Jarraian, irakurgaiaren aipatzen diren bertso saio bakoitzaren ezaugarriekin eskema bat beteko dute.

### IKASLEAREN LIBURUXKAN

<b>BERTSO SAIO-MOTAK ETA BAKOITZAREN EZAUGARRIAK</b>		
Gai jartzailearekin:	Bi edo hiru bertsolarien arteko saio librea:	Mahai ondoko emanaldiak:
Bestelako ospakizunak:	Bertso trama:	Bertsolari txapelketa:

**Feedbacka: bikoteak berregin eta prestatutako "egia ala gezurra" ariketa egin. (15´)**

Ondoren binaka jarri eta eskema alderatu.

- Gero, irakurgaiko informazioa erabiliz, "egia ala gezurra" ariketa burutuko dute. Baieztapen batzuk idatziko dituzte eta zuzena ez den informazioa txertatzeko esango diegu. Era horretan, irakurgaia zenbateraino ulertu duten jakingo dute.
- Bikote desberdinetako kideak elkartu, prestatutako baieztapenak elkarri irakurri eta okerra den informazioa zuzenduko dute.

## 2

### **Ataza: taulan ideia desberdinak jaso eta guztiekin idatzizko testu bat egin. (20´)**

- Talde txikietan elkartu (hirunaka edo launaka), eta taula alderatuko dute. Ikaskideek aipatu dituzten ideia berriak ere taulan txertatuko dituzte.

#### **IKASLEAREN LIBURUXKAN**

	<b>Antzezlan batean</b>	<b>Bertso saio batean</b>
• Eszenatokia nolakoa da?		
• Esan behar duten testua edo berbaldia nolakoa da: bat-batekoa, aurrez ikasia...		
• Makillajea, jantziak, keinuak, imintzioak,...		
• Zuzendaririk edo gidaririk ba al dago? Zein da bere lana?		

- Ondoren taulako ideiak kontuan hartuta antzezlan eta bertso saioaren arteko aldeak idatziz adieraziko dituzte. Gutun forman idazteko eskatuko diegu. Horretarako, honako egoera aurkeztuko diegu: Bertsolaritza zer den ez dakien lagunari azaldu iezaiozu zer den. Antzerkiarekin alderatzen baduzu asko lagunduko dio.

#### **IKASLEAREN LIBURUXKAN**

- Aipatuko ditudan ideiak:
- Antzeko ezaugarriak:
- Ezaugarri desberdinak:

### **Feedbacka: entzungaia entzun eta ideia berriak azpimarratu eta idazlanean txertatu. (10´)**

- Binaka jarrita idatzi dutena irakurriko dute. Ondoren, Ramon Agirre aktoreari Euskadi Irratian egiten dioten elkarrizketa bat entzungo dute (10. eranskina), eta lehendik aurreikusitua aktore honek diotenarekin alderatuko dute.
- Entzungaiaren transkripzioa irakurri (10. eranskina), eta aipatu ez duten ideia berririk balego, azpimarratzeko esango diegu. Ondoren, ideia berriak beren idazlanetan txertatuko dituzte.

### **Atazaostea: bertso tramak direla eta Egunkariako artikuluren bat irakurri eta iritzia eman. (10´)**

- Bertso saio berezi samarra eta berritzaileena da bertso trama. Antzezlan baten antz handia du. (11. [eranskinean](#)) Egunkariako bertso tramen inguruko artikulu batzuk daude. Ikasleen artean banatu, irakurri eta iritzia emateko.



### 3. ERANSKINAK

#### 1. eranskina

#### Ikaslearen autoebaluazio-orria

■ Nola baloratuko zenuke oro har ikastunitate hau?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

■ Zure iritziz zein izan da atalik interesgarriena? Zergatik?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

.....  
■ Eta gutxien gustatu zaizuna? Zergatik?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

■ Euskal kulturara hurbiltzeko aproposa izan al da ikastunitatea?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

.....  
■ Erabilitako euskarriak (bideo-pasarteak, idatzizko artikulua...) ulertzeko arazorik izan al duzu?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

.....  
■ Besterik?

.....  
.....  
.....  
.....

.....  
.....

**Unai Iturriaga:**

Arratsaldeon denoi,  
oi, entzulegoa!  
bi herrik bete dute  
hemen estradoa  
hitza dugu langai,  
hitza generoa  
bi herriren iragana,  
bi herriren geroa,  
Kantauri hotza eta  
Karibe beroa

**Tomasita Quiala:**

Traigo una flor en la mano  
que a mi patria representa (bis)  
para que Zarauz sienta  
lo que es el punto cubano.  
En euskera o castellano  
hay un público completo  
con el mismo sentimiento se canta  
en verso y en prosa  
en esta maravillosa  
plaza del ayuntamiento.

**Carles: (Katalanetik euskarara itzulia)**

Ai Jauna, garrotina,  
ai Jauna garrotana,  
beldurtzen hasia nago  
Irazu begira daukadalako.

**Bertsolariak eta garrotineroak bat-batean:**

**Josu Goikoetxea, aurkezlea:**

Kataluniako Pomada izeneko folk taldea, Maialen Lujanbio eta Jesus Mari Irazu bertsolariekin aritu ziren Bilborock aretoan. Pomada taldeak, Kataluniako folk talde onenaren saria eskuratu zuen iaz, baina horretaz aparte, bertsolariak ere badira. Katalunian, beste herri askotan bezala, bada ahozko tradizio bat orain hango gazteak arnas berritzen ari direna. Garrotini izeneko kopla-mota egiten dute han. Eta Pomadakoekin batera (hango musika talde bat da) gure bertsolariak ere kantari entzun genituen Bilbon. Ondokoa saio horren laburpena duzue.

**Maialen:**

Ta etzazutela uste  
hauek musika truke  
baino inprobisatzen ere  
ondo asko dakite.

**ESTRIBILOA:**

AL GARROTIN, AL GARROTAN  
BELA BELA BELA AL SAN JOAN  
ITZULPENA:  
AL GARROTIN, AL GARROTAN,  
SAN JOANEN ONDOAN.

**Irazu:**

Txino, Carlas, Helena,  
Pipas, auspo lerdena  
tristurarentzat ez al da  
pomadarik onena.

**ESTRIBILOA:**

AL GARROTIN, AL GARROTAN  
BELA BELA BELA AL SAN JOAN  
ITZULPENA:  
AL GARROTIN, AL GARROTAN,  
SAN JOANEN ONDOAN.

**Helena:**

Nik ez dakit hitz eiten,  
hitz egiten euskara,  
bakarrik gauza bat, bakarrik  
nik dakit lara lara.

**ESTRIBILOA:**

AL GARROTIN, AL GARROTAN  
BELA BELA BELA AL SAN JOAN  
ITZULPENA:  
AL GARROTIN, AL GARROTAN,  
SAN JOANEN ONDOAN.

**Maialen:**

Nik Helenaren kantu  
hori nahi det goratu  
bi instrumentu jotzen ditu  
ta bi hizkuntza mintzatu

**ESTRIBILOA:**

AL GARROTIN, AL GARROTAN  
BELA BELA BELA AL SAN JOAN  
ITZULPENA:  
AL GARROTIN, AL GARROTAN,  
SAN JOANEN ONDOAN.

**Helena: (Katalanetik euskarara itzulia)**

Eskertzen dizut esan duzun hori,  
behar den bezalako neska zara zu,  
jo ta hitz egiten dudala diozu,  
baina dena egiten dut gaizki.

**ESTRIBILOA:**

AL GARROTIN, AL GARROTAN  
BELA BELA BELA AL SAN JOAN  
ITZULPENA:  
AL GARROTIN, AL GARROTAN,  
SAN JOANEN ONDOAN.

**Maialen:**

Ni ere nabil nekez,  
panderoaren bertutez,  
hotsa aterako nioke  
baina musikarik ez.

**ESTRIBILOA:**

AL GARROTIN, AL GARROTAN  
BELA BELA BELA AL SAN JOAN  
ITZULPENA:  
AL GARROTIN, AL GARROTAN,  
SAN JOANEN ONDOAN.

**Irazu:**

Helena ez jarri triste.  
ia barkamen eske,  
guk katalana jakin nahi  
Zuk euskaraz hainbeste.

**ESTRIBILOA:**

AL GARROTIN, AL GARROTAN  
BELA BELA BELA AL SAN JOAN  
ITZULPENA:  
AL GARROTIN, AL GARROTAN,  
SAN JOANEN ONDOAN.

**Carles: (Katalanetik euskarara itzulia)**

Ai Jauna, garrotina,  
ai jauna, garrotana,  
beldurtzen hasia nago  
Irazu begira daukadalako.

**ESTRIBILOA:**

AL GARROTIN, AL GARROTAN  
BELA BELA BELA AL SAN JOAN  
ITZULPENA:  
AL GARROTIN, AL GARROTAN,

SAN JOANEN ONDOAN.

**Irazu:**

Trikitiai kolpeka,  
zu musikaz beteta  
aizazu Carles zer zera  
Tapia edo Kepa?

**ESTRIBILOA:**

AL GARROTIN, AL GARROTAN  
BELA BELA BELA AL SAN JOAN  
ITZULPENA:  
AL GARROTIN, AL GARROTAN,  
SAN JOANEN ONDOAN.

**Carles: (Katalanetik euskarara itzulia)**

Irazu mozkorturik dago,  
nire ustez atxurtuta zeharo,  
ez Tapia ez Junkera,  
Laja da onena!!!

**Erreportajearen bukaera:**

**Josu Goikoetxea, aurkezlea:**

Entzun berri ditugun Pomada taldekoak, jakizue, Kataluniako lehenengo bertso eskolaren sortzaileak dituzue. Bide luzea, gogorra eta ederra daukate aurrean.



### Sabadellgo bertso-eskolaren lagun jatorrak

TRIKI-BERTSO TALDEA: Pomada.  
BERTSOLARIAK: Maialen Lujanbio eta Jexux Mari Irazu. LEKUA: Bilboko Bilborock aretoa.  
EGUNA: otsailaren 15a. ZENBAT JENDE: 150 lagun.

Zein ondo pasa genuen Kataluniako eta Euskal Herriko kulturen topagune honetan! Inork ez zekien ondo zer aterako zen esperimentu honetatik; agurreko bertsoetan dena primeran joan zela egiaztatu zuten. Carlesek (ahotsa eta eskusoinua) eta Helenak (ahotsa, panderoa eta bonboa) laguntzaile pare bat ekarri zuten, bata klarinetean eta bestea tuban. Eta horrela bide erdian geratzen zen soinu ederra lortu zuten.

Irazuk eta Lujanbiok hasierako bertsoak egin zituzten laguntzarik gabe, Euskadiko eta Kataluniako harremanez eta alderaketez. Ondoren, Sabadellgo lagunak "Egia da" kantatzen aritu ziren, Gipuzkoako bertsolariek lanari ekiten zioten bitartean. Behin berotuz gero, bertso onenak bigarren atalean agertu ziren. Bitartean, musikariek beren kantu ederrenak egin zituzten: En Pere Galleri reggaea, La princesa de la vainilla triki-ragga, M<sup>a</sup> Merce cumbia, La rumba... Hamarren bat kantu egin zituzten, Lluís Llach en L'estaca ahaztu gabe.

### Bertsoak euskaraz... eta katalanez!

Bi atal luze bete zituzten bertsolariek erdialdean: lehenengoa, Bilbo hiriar buruzkoa, eta bigarrena, entzuleei buruzkoa: barreak sortu zituzten Jexuxek eta Maialenek goialdean zegoen entzuleriaz aritzean: «Non jarri behar diren ordaindu gabe sartuz gero», esan zuen Larraulgoak, «horiek bertso eskolakoak dira... edo katalanak», erantzun zion hernaniarrak. Xelebreak izan ziren azken aldeko emanaldiak, batez ere El garrotin leloa oinarri moduan hartuz gero: Helenak euskaraz eta katalanez inprobisatu zituen zenbait bertso eta bere saio makala goratu zuten bi bertsolariek; Maialenek: «Hau neska hau, bi instrumentu eta bi hizkuntza, nik panderoari hotsa aterako nioke, baina musikaririk ez»; Irazuk: «Katalanez jakitea gustatuko litzaidake zuk euskaraz hainbeste». Era berean Carles Tapia eta Junkerarekin aldentuz gero, honek esan zuen Laja nahiago zuela. Irazuk: «Non demontre ikasi duzu Lajarena?» Carlesek (katalanez): «Azkoitira joan eta hartu Lajaren jatekerako bidea». Gauza gehiago gertatu ziren (agurra jendearen artean egin zuten sei kideek "Egia da" leloarekin), hiru hitzetan labur daitezkeenak: aurtengo triki-bertsorik onena. Fins la propera! (hurrengoa arte!)

**Maialen Lujanbio, bertsolaria:**

Bueno, orokorrean atsegina. Nik ustet polita izan dala, ta bueno iruditu zait neri jendea oso gustura egon dala. Guretzako polita. Katalanekin, lagun katalanekin, kantatzea eta, batez ere, inprobisatzea beraiekin. Nik uste, bai entzuteko, eta bai guretzat ere, oso jolas polita dala. Ba, batek, katalanez kantatu, inprobisatuz gaiñea, eta ondokoak, euskaraz erantzun inprobisatuz. Jo, ta hoi da oso jolas bitxia ta oso oso polita nere ustez.







**Tomasita Quiala**

Nosotros somos versadores cubanos. El punto cubano en nuestro país, en nuestra tierra, se canta en una composición literaria que es muy conocida, que se denomina décima. La décima se conoce escrita, pero esta se improvisa sobre la marcha. O sea, tiene cierta similitud con lo que hacen los bertsolaris aquí, pero que nosotros siempre la hacemos en esa misma rima: la décima. Y vamos ( ) espontáneamente. Es una forma de canto que se hace musicalmente. Nosotros siempre estamos acompañados musicalmente.

La base del acompañamiento es un instrumento maravilloso que se llama laúd, que tiene doce cuerdas y que sus notas emiten el sonido de muchas aves del monte. Y sobre todo a nosotros, cuando escuchamos laúd, nos recuerda mucho el ( ) cubano.

**Tekniken marrazkiak**

			
<p>1. teknika <i>Doinua aukeratu</i></p>	<p>2. teknika <i>Errematea pentsatu</i></p>		
			
<p>3. teknika <i>Errimak bilatu</i></p>	<p>4. teknika <i>Bertsoa osatu</i></p>		

### Inprobisatzeko teknikak

Euskal Telebistak aurkezten du: **BERTSOLARITZA**.

Fenomeno bitxia da bertsolaritza. Batetik, euskaraz ari dira. Bestetik, inon ez du inprobisazioak hemen adinako arrakasta eta indarririk. Ahozko tradizioaren ondarea da, ahozko literaturaren altxorra. Artistak eta entzuleak harrigarriro uztartzen dituen espresio bidea.

Baina nola inprobisatzen dute bertsolariek? Ariketa mekanikoa da ala oraindik zenbaitek uste bezala, jainkozko ukitua?

### **BERTSOAREN BUKAERA: MAMIA, ERREMATEA, INDARRA**

Jokin Sorozabalen eskutik, goazen prozesuaren lehen zatia urratzera.

Arazismoari buruzkoa da aurkezleak eman dion gaia. Ezer baino lehen, doinu egoki bat aukeratu behar izan du. Doinuak gaiari eta honen tratamenduari egokitua behar du izan. Gaiari emango dion ikuspuntua ere pentsatu du. Bertsoak, errimak, metrika eta beste mila osagai ditu, baina azken esaldia (ahapaldiaren bukaera) du oinarri. Horixe ba bertsoaren mamia, horixe indarra eta distira emango dion errematea. Horrexegatik utzi du bukaerarako. Bukaera horretara heldu arteko guztia inprobisazio hutsa da, baina inprobisatutako zati horrek prestatu behar dio bidea erremateari.

### **ERRIMA**

Andoni Egañaren bertso batek lagunduko digu bertso osaketaren beste zutabe bat ulertzen: errima.

Andoni Egañari "irriparra" jarri diote gaitzat. Hori entzun orduko, txapelketa aurreko egunetan pasatako estuasun guztiak datozkio burura: lo egin ezina, faborito izatearen presioa, hainbat pertsonen aurrean kantatu beharra, eta une latz horietan izan duen babes bakarra: emaztearen irriparra.

Lehenik, beti bezala, doinua hautatu ondoren, bukaera pentsatu du.

Jarraian, bukaera horren azken hitza oinarri harturik, errimak bilatzen hasi behar izan du. Asko ditu buruan bueltaka, baina egokienak aukeratu beharra dauka. Eta aukeraketa egin ondoren, bakoitzarekin esaldiak osatuz eta neurtuz aurrez pentsatutako bukaerara heldu arte.

### **METRIKA**

Bien bitartean, belodromoa tentsioa gorantz doa. Joxe Lizasoren semea, Sebastian, kantuan hastera doa. "Parkeko aulkia zara" jarri diote gaitzat. Berehala hautatu du doinua. Berehala pentsatu du bertsoaren azkena. Eta errimaren gurpila ere martxan jarri du, baina metrika zaintzea ere ezinbestekoa da.

"Arratsaldean", bost silabako hitzaz hasi du bertsoa. Lau behar izan balitu, "arratsaldez" aukeratuko zukeen, eta zazpi behar izan balitu, "arratsalde honetan".

Estrofa-mota bakoitzak bere metrika izaten du. Kasu honetan lerroek 10 eta 8 silaba dituzte. Lehen aipatu dugun tranpatxoaren antzekoak erabiliz, neurri horietan errimatu beharko du. Doinuak berak nota bakoitzeko silaba bat eskatzen du normalki. Baldintza hauek denak ezin hobeto bete ditu Sebastian Lizasok.

### **ERREPASOA**

Bertso osaketaren hiru zutabe nagusiak ezagutu ditugu banan-banan. Xabier Euzkitzeren bertso bat aukeratu dugu denen nahasketa nola egin daitekeen ikusteko.

Gai emaileak egoera zail bat aurkeztu dio, "drogazalea zara". Zer tratamendu eman gaiari? Drogari zuzenean bigarren pertsonan hitz egingo dio. Hau da bukaera:

"bizimodua deserto huts bat  
iruditzen zait zu gabe."

doinu tristea aukeratu du, bromarako balio ez duena. Lizasok hautatu duen estrofa mota bera da. 10 eta 8 silabatan neurtzen ari da lerro bakoitza inolako akatsik gabe. Errima pila

bat ere behar du. Gurpila martxan jarri eta egokienak hautatu. Gero, bakoitzarekin esaldi bat osatu eta neurtu. Dena logikaz egin behar da, ordea. Azken esaldiak, beste ezer baino lehenago pentsatu duen bukaerak, logika, zentzua eta indarra izan dezan.

### **EMAITZA**

Inprobisatu eta kantatu beharraren tentsioa amaitu da. Beste mota bateko tentsioa izango dute ondorengo minutuetan bertsolariek. Mahai honetan eserita daudenak epaileak dira. Goizean goizetik entzundako bertso guztiak hutsetik hamarrera puntuatu dituzte. Epaia euren esku dago. Jendea isilik. Nor ote da txapeldun?

### **(Bertsolariak bere baitan)**

Xabier Euzkitze: Txapeldun ez banaiz, bigarren. Beno, Lizasorekin, kontuz.

Andoni Egaña: Aurten baietz uste dut, Euzkitzek aurre hartzen ez badit.

Sebastian Lizaso: Arratsaldean asko errekueratu dut. Suerte pixka batekin hirugarren.

Gaur egun albistegian, Xabier Euzkitze:

Andoni Egañak irabazi du, 5 orduko lan luze eta neketsuaren ondoren aurtengo Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Besteek beste aukeraren baten zain egon beharko dute. Zorionak Egañari.

Xabier Amuriza

Lan honen helburua bat-bateko bertso-plazei buruz gogoeta bat egitea da. Bertso-plaza ezberdinak zehaztu, deskribatu, sailkatu. Haien ezaugarriak azaldu, edo oro har balioetsi ere bai, alde onak, alde txarrak edo dudazkoak agertuz. Bide batez, aipamen batzuk egingo badira ere, lan honen helburua ez da plaza bakoitzeko bertso-gintzak nolakoa izan behar duen aztertzea, baizik eta saio libreak gaia nola atera eta nola garatu behar den, saio gaidunetan gaiak nola jarri behar diren eta nolakoak izan behar duten, eta abar. Are gutxiago aztertuko da bertso jarrien izaera, egikera eta plazaratzea. Hemen bat-bateko bertso-gintzaz ari naiz eta horren barruan bertso-plazak soil-soilik. Bat-bateko bertso saioak bi sail handitan bana daitezke: saio libreak eta saio gaidunak. Saio librea bertsolariak bere kabuz, dena beretik egiten duena da. Saio gaiduna bestek emandako gaiei erantzuten zaiena. Hemen bertsolariak gainera gai-jartzailea dago. Goazen sail bakoitza xehatzera.

### SAIO LIBREAK

Saio libreak era askotakoak eta egoera askotan egiten dira. Zazpi multzotan deskribatuko ditut.

#### 1) SAIO BETEGARRIAK

Herri kirolen ikuskizun bat esaterako. Hemen bertsolariak tarteka eta gutxika kantatzen du, batetik bestera trantsizio gisa: aizkolariak berotu bitartean, ezpalak bildu bitartean, partaideak aurkeztuz, edo beste gabe jardunetik jardunerako tartea beteaz soilik. Horrelako ikuskizun anizkoitzak askotan izaten dira: aizkolari, txingalari, harri-jasotzaile, lasterkari, eta horien artean ere maila ezberdinak: haurrak, gazteak, herrikoak, erbestekoak, afiziokoak, ofiziokoak, etab.

Eta ez kiroletan bakarrik. Izan litezke ikuskizun folklorikoak, artistikoak musikalak... non talde eta modalitate desberdinekoek parte hartzen duten. Emankizun horietan tarte luzeak sortzen dira sarritan: plaza garbitu edo beste era batera moldatu behar delako, eszenatokia zerbaitetan aldatu behar delako, talde batek janzkera aldatu behar duelako, norbait falta delako eta mila holako eta bestelako. Bertsolariak han badaude, saiotxo bat eginez disimulatzen da dena.

#### 2) SAIO AURKEZLEAK

Aurreko multzoko saio motak izanik, hemen bertsolariak betelana baino zeregin zehatzagoa eta garrantzitsuagoa dauka. Dantza erakusketa bat, adibidez. Bertsolariak taldeen eta dantza moten aurkezle egiten du. Berak darama haria, eta iruditzen zaionean, interbentzio luzeagoak egin ditzake. Aurkezle edo gidari lan hori ez dauka bakarrik egin beharrik. Beste norbaitek hizketan egin dezake eta berak bertsoetan. Dantzena bezala, beste edozein erakusketa edo ekitaldi izan daiteke: musika tresnak, eskulanak, proiektzioak, argazkiak, etab.

#### 3) SAIO ANIKOITZ BATEN ATAL

Esaterako, maiz iragartzen den hau: trikitilariak halako dantza taldearen ekitaldia, bertsolariak eta amaitzeko berriz trikitilariak. Edo: haur jolasak, herri kirolen bat edo batzuk, eta amaitzeko bertso saioa. Hauetan bertsolariak bere txanda eta denbora dauka. Denbora horretan, -ordu laurden, hoge minutu, ordu erdi-, lana bere kabuz osatu behar du, berak jakingo du nola. Baina aurretik edo ondotik, edo bietan agian, mugaturik aurkitzen da, bai denboraz eta bai testuinguruz ere, bere jarduna beste ekitaldi batzuen arteko bat gehiago baita.

#### 4) EKITALDI BAKARRA EDO INDEPENDIENTEA

Aurre edo oste hurbilean ezer ez daukan saioa. Esaterako, eguerdian edo arratsaldean edo iluntzean, halako plazan bertso saioa, inguruan beste ezer gabe, jaien barruan, edo beste edozein motibo dela. Baliteke aurretik edo ondotik zerbait egotea, betegarri gisa, edo baita programa barruan ere, haur dantzak aureskua, edo zernahi, baina tartean denbora luze samarra dela. Bertso saioa ez dator ordena baten barruan, bera bakarrik baizik.

#### 5) JAI OTORDUAK

Gehienez bazkari edo afariak izaten dira, baina badira gosariak eta hamaiketakoak ere. Eta motiboak askotarikoak: herri bazkaria, jubilatuen, elkarte edo txoko baten urteko eguna, eskola edo etxeren baten nolabaiteko jaia, ezkontza, ezkondu aurreko agur-afaria, gremio baten jaia: txoferrak, kintoak, baserritarrak, kinto-afaria, jostunak, dendariak..., omenaldiak, ongi etorriak, urre ezteiak, zikiro janak, biltzarrak... Hitz batez, Euskal Herrian mila arrazoi desberdinez egin ohi diren otordu jendetsuak. Honelakoetan bertsolariak deituak izan badira, nahiko eskuera zabala edukitzen dute, saio bat edo batzuk egiteko.

#### 6) BERTSO AFARIAK

Bazkariak ere izan daitezke, oro har afariak askoz gehiago dira baina. Hauetan jende kopuru jakin samarra izaten da, berrogeitik ehunera bitartean. Gutxiagokoak eta gehiagokoak ere

badira, baina gehienetan ehunetik behera eta berrogeitik gora ibiliko dira.

7) AZKENIK, bizpahiru bertsoko okasio oso definituak: mitinak, hiletak, ongi etorriak, omenaldiak, inaugurazioak, estreinak... non bertsolari batek edo batzuk interbentzio labur bat daukaten, eguneko gai oso jakinaren inguruan.

#### SAIO GAIDUNAK

Saio gaidunak saio libreetan aipatutako guztiak izan daitezke, lehenengoa, bigarrena eta zazpigarrena izan ezik, hots, saio betegarriak, saio aurkezleak eta okasioko interbentzio laburrak izan ezik. Beste hauetan librean nahiz gaia jarrita egin liteke, baita era mistoan ere, askotan egin ohi denez.

Hauetz gainera, eta eredu ugarien eta garrantzitsuen gisa, bertso jaialdiak daude, non lau bertsolari edo gehiagok -gehienez sei eta batzutan zortzi ere bai-gai-jartzaile baten agindupean, ordu eta erditik pare bat ordura bitarteko saioa egiten duten. Zertara dator jendea? Erantzun orokor bat ondo pasatzea izan liteke. Baina zer da ondo pasatzea? Erantzun zehatzago bat bertsoak entzunez gozatzea izan liteke. Ez beraz nolana hiko ondo pasatzea. Hainbeste jenderen artean, zaletasun maila ezberdinak daude noski, baina oro har jaialdi batera datorrena bertsozalea da edo izateko arrisku handian dabil. Beraz, gai mota desberdinak, -umorezkoak, sentiberak, dramatikoak...- itxaroten edo gutxienez onartzen dituela pentsatu behar da. Dena dela, hartzailearen jarrera kontuan hartzekoa bada ere, hau emalearen ardura da gehiago.

**Ramon Agirre elkarrizketa**

Ramon Agirre- "Antzeko parezido".

Nekane Peñagarikano (kazetaria)- Besteak lan eta nekatu zu.

R.A.- Bai, bai, bai. Bueno, gu, ikusten ere egiten da lana, e? Energiak bidaltzen. Joe, nik inbidia, nik bertsoekin inbidia pasatzen dut. Kristona!

N.P.- Zer ba?

R.A.- Zer ba? Jode, zortzi mila ikusle eduki beharra horrela, adi-adi, mugitu gabe eta ez dakit zenbat ordutan. Jode! Gure antzerki obrak ikustera etortzen direnek gauza bera galdetzen dute beti: "zer, ordubete baino askoz gehiago ez da izango, ezta?". Bai, eta gero zera, betikoa, sarrerak oso garesti jartzen ditugula. Jo, inbidia? Inbidia? Kristona, kristona. Eta gero inprobisatzeko ahalmen hori, jo! Gai bat jarri eta, ta! Bat- batean hainbeste gauza.

N.P.- Arrazoituta gainera.

R.A.- Jodeeee! Bueno, bueno. Guk etxetik ikasita ekartzen dugu esan beharreko guztia. Bai. Eta hala ere, batzutan ahaztu ere bai. Eta komeriak, komeriak. Bai, bai. Ba aktoreok, eee, bueno, hori oso gauza ezaguna da, aktoreok, zera, amets gaizto bat izaten dugu oso maiz. Eta zera izaten da: oholtzara irten eta zer esan behar duzun ez jakitea, testua ahaztea, alegia. Hori da amets gaiztorik gaiztoena.

N.P.- Bai, e?

R.A.- Bai, bai, bai. Eta guk asko, maiz egiten dugu hori. Eske bertsolari jende hau ze kastakoa da? Ze, ze, zer izango dute buruan? Hori non ikasten da? Izango da sistemaren bat, ez? Guk baditugu metodo, joe, famatu askoak: (.....) eta horrelakoak. Baina inprobisazioari buruz, behintzat ez dute gauza handiegirik esaten.

N.P.- Bertso-eskola batean izena eman beharko duzu oraindik, Ramon.

R.A.- Ba! Ez dakit, adin honetan ez dakit hartuko nauten. Ai, ai! Izugarritzko inbidia, esaten dizut. Inbidia sana, e? Je, je, je, inbidia sana, bai. Baina eske ez dute ezer behar bere lana txukun egiteko. Guk berriz, zea, makillajea, jantziak, keinuak, imintzioak, ... Bertsolariak, eskuak sakelari sartu, jarri mikrofonoaren aurrean eta bota! Batere koreografiarik gabe. Egia. Joe! Lehengoan Sustrai Colinak bota zuen bat oso grazioso, kale garbitzailearena. Eta nik, erratza ere ikusten nion azkenerako. Polita atera zen azkeneko hura: "zuen kalea zuena da ta, zuek garbitu zazute", kabroia! Bai, bai, bai. Gu beti ibiltzen gara lan desberdinetarako itxura aldatu nahian: pelukina dela, bibotea dela, ... Jode, Iturriaga, ...

N.P.- Beti itxura aldatzen!

R.A.- Bai, behintzat pentsatzen: "nola egingo dut nik pertsonaia hau?" Iturriagak edozein pertsonai egiten du patilarik kendu gabe. Jode! Eta beste bentaja bat ere badute hauek, ez dutela zuzendari baten txapa agoantatu behar. Bai, jode, nik ez dut imajinatzen zuzendari bat Andoni Egañari esaten: "zuk ez pentsatu, egin!". Hori esaten digute guri, askotan, e? Eta Maialen Lujanbiori zein neurri edo doinutan kantatu behar duen. Edo, zea: "kendu jertse hori eta jarri beste hau". PSSS!!! Ba, kriston inbidia, inbidia sana, e? Esan dizut, sano-sano... Bueno, ez dakit inbidia sanorik ba ote den, baina bueno.

Bueno Nekane, ni banoa, banoa.

N.P.- Inbidiak eragindako agujetak eta guzti.

R.A.- Datozen bi astetan ez naiz etorriko, e?

N.P.- Ez, e? Ez duzu asmorik, e?

R.A.- Ez egon triste, e? Etorriko naiz, azalduko naiz datorren urtean.

N.P.- Begira, zu ez bazatoz asteartean, gu ere ez. Begira zer esaten dizudan.

R.A.- Bale ba.

N.P.- Triste ez egoteko modua, horixe, denok elkarrekin.

R.A.- Bueno, aio!

N.P.- Ondo pasa ba.

## Bertso tramak

Donostiako Kursaal jauregiko Areto Nagusian eskainiko dute jaialdia larunbat arratsaldean 'Etxe honetako komeriak' izeneko bertso trama izango da Bertso Eguna 2001en ekitaldi garrantzitsuena

Jon Gonzalo/DONOSTIA

XXI. mendeko lehen Bertso Eguna larunbatean izango da Donostiako Kursoalean. Urtero legez, bertsolari ugari bilduko dira oholtza gainean, baina larunbatekoa ez da ohiko bertso saioa izango. Izan ere, aurtengo ekitaldia bertso trama baten inguruan antolatu dute. Alegia, istorio baten barruan ardatz izango duen bertso saioa izango dela. «Bertso Egunaren helburua garaian garaiko bertsolaritza islatzea izan beharko luke. Horregatik, Bertso Eguna 2001erako azkenaldian arrakasta lortu duen bertso formula bat aukeratu dugu: bertso trama», adierazi zuen atzoko agerraldian Jexux Murua Bertsozale Elkarteko kideak.

Narratzaile lanetan (bertso tramak ez du gai-jartzailerik) Andoni Egaña ariko da, eta zarauztarra pozik azaldu zen atzo larunbateko eginkizunarekin. «Niretzat berria den eginkizun batean ariko naiz, baina ilusio handia dut, bertso trama oso ekitaldi erakargarria izan daitekeela uste baitut», onartu zuen Egañak.

Sarrera askotxo saldu dituzte jada Larunbateko ekitaldiak jende andana erakarriko du. Bertsolari Elkarteko kideek atzo adierazi zuten, dagoeneko, 600 sarrera saldu dituzte, eta Kursoaleko Ganbara Aretoa txiki gelditu da. Hori dela eta, Bertso Eguna 2001 Kursoaleko Areto Nagusian izango da: «Hasiera batean,

Bertso Eguna Kursoaleko Ganbara Aretoan izango zela iragarri genuen, baina jende askotxo kalean geldituko zela ikusita Areto Nagusian egitea pentsatu dugu», azaldu zuen Jexux Muruak.

Izan ere, urtetik urtera gero eta jende gehiago biltzen da Bertso Egunean: «Iaz, 750 lagun bildu ginen, eta aurten mila inguru izan gaitzke. Urtetik urtera handitzen ari den jaialdia da gurea, eta joera horri heltzen saiatuko gara», onartu zuen Muruak.

Bertso Eguna, ordea, ez da Kursoaleko ekitaldiarekin amaituko. Gaueko 21:00etan bertso afaria izango da Zubietako Araeta sagardotegian. Alabaina, bertso afarirako sarrerarik erosi ez duen oro berandu dabil, jada. Izan ere, sarrera guztiak saldu dituzte. «430 lagunentzako lekua dago, eta erreserba guztiak eginda daude. Ez genuen hainbeste jende etorriko zenik espero», onartu zuen Muruak. Aipatu afarian, besteak beste, Jon Sarasuak jarritako bertsoak entzuteko parada izango da. Hori dela eta, pozik azaldu zen Murua: «Larunbaterako bakarrik bada ere, Jon Sarasua bertsolaria berreskuratu dugula esan dezakegu».

Bertsozale Elkarteko kideek, berriz, arratsaldeko 16:30ean izango dute eguneko lehenengo zita. Ordu horretan, urteko Batzar Nagusia izango da Kursoalean.



## **KURSAALETIK KURSAALERA**

Bertso Egunaren lehen ekitaldia 1935ean egin zen, garai hartako Donostiako Kurasaalean. Geroztik, ordea, makina bat areto izan dira Bertso Egunaren aterpe. Haatik, XXI. mendean bere sustraietara itzuliko da jaialdia. Izan ere, Bertso Eguna 2001 Donostiako Kurasaalean izango da berriro ere.

### **Arrakasta handiko formula**

Azkenaldian arrakasta handia izan duen bertso formula bat da bertso trama. Funtsean, istorio baten barruan ardatz hartutako bertso saio bat da. Bertsolariak istorio horretako pertsonaiak dira, eta narratzaileari, berriz, bertsolarien jarduna istorioaren arabera bideratzea dagokio. Larunbatean, Andoni Egaña ariko da lan horretan. «Bertsolariak istorioaren ardatzetik aldentzeko arriskua dago, baina niri arrisku horrek sorrarazten dit zirrara», onartu zuen atzoko agerraldian zarauztarrak.

Larunbateko bertso tramaren gidioia Andoni Egañak berak idatzi du, Jon Maia eta Josu Goikoetxearen laguntzarekin. «Etxe bateko komeriak dira istorioaren ardatza. Bertsolari bakoitza etxe horretako pertsonaia bat izango da: etxe nagusia, emaztea, alaba, AEK-ko irakaslea den mutil-laguna, atezaina, liburu saltzailea, tabernaria eta abar. Istorio interesgarria gerta litekeela uste dut», azpimarratu zuen Egañak.

Bertso tramaren jatorria ere hizpide izan zuen bertsolari zarauztarrak: «Orain dela 7 urte inguru, Igor Elortza eta Jon Maia Gasteizen ikasle zirela, bertso trama bezalako formula berriak jorratzen hasi ziren. Beraiek aitzindariak dira horrelako kontuetan».

## Bakoitza bere paperean

'Etxe honetako komeriak' bertso tramaren istorioa eta pertsonaiak biribildu egin zituzten bederatzi bertsolariek

Ainhoa Oiartzabal/DONOSTIA

Iragarri baino ordu laurden geroago hasi zen atzo Bertso Eguna 2001eko bertso saioa. Saioa entzutera hurbildu ziren bertsozale guztiak -asko- eserlekuetan jesartzeak denbora eman baitzuen. Eszenatokian agertu zen Jon Maia bertsolariaren aurkezpenaren ondotik agertu ziren oholtzaren gainean Imanol Lazkano, Etxe honetako komeriak bertso traman etxeko ugazaba; Joxe Agirre, ugazabaren emaztea; Oihane Enbeita, aurreko bien alaba; Unai Iturriaga, alabaren senargaia eta AEK-ko irakaslea; Aitor Mendiluze, ertzaina; Mañukorta, etxeko atezaina; Anjel Mari Peñagarikano, liburu-saltzailea; eta Aritz Lopategi etxe azpiko tabernaria.

Bederatzi bertsolariek ongi jarraitu zioten Andoni Egañaren narrazioari. Berak istorioaren haria kontatzen zuen, eta, halaber, bertsolariei kontakizun horretako elkarrizketak nahiz bakarrizketak egiteko eskatzen zien. Etxe honetako komeriak bertso tramaren gai nagusia jabeak etxea saldu egin nahi zuela zen. Emazteak, berriz, ez zuen halakorik egiterik nahi, eta hala azaltzen zion bertsoan Joxe Agirrek Imanol Lazkanori. Politagoa, ordea, Imanol Lazkanok, bakarka, aurrerago egin zuen saioa izan zen. Bi mikrofonorekin baliaturik etxea saltzeko aldeko eta kontrako arrazoiak eman behar zituen, emaztea konbentzitzeko entrenamendu gisa. Emaztearen «hala ere egingo dezu nahi dezun guztia», eta, senarraren «hori egiten ez duena ez da nagusia» esaldiek ongi laburbildu zuten bertso traman zehar bi pertsonaia horien jarrera.

Ondoren, Anjel Mari Peñagarikano jende artera jaitsi zen bertsoak kantatuz liburuak saltzera edo. Halaxe esan zion Hernaniko bertsolari koadrila bati: « (...) salduko nizueke/zu ere bertsolari». Azpillagari,

berriz, berari buruzko liburua saltzen saiatu zen. Ikusleen txalo zaparrada jaso zuen. Ikusleek ere gustura entzun zuten Mañukortaren eta Mendiluzeren arteko hika-mika. «Argiagorik ez baldin bada/salbatuko al da Euskadi» esaldiarekin amaitu zuen Mañukorta atezainak

ertzainarekin izan zuen elkarrizketa. Saio polita egin zuten, halaber, Peñagarikanok eta Mendiluzek. Honako hau esan zion Peñak:

(...) txalapartan egina  
hau kolekzioa  
salduko dizut euskal  
errepresioa

Mendiluze ez zen atzean gelditu: «hor jartzen duen guztia/ederki dakit nik», erantzun zion.

Saioaren bertsoak sakonenak Unai Iturriaga AEK-ko irakasleak bota zituen, Egañak «30 urterekin iraultzaile izaten jarraitzea ez dela erraza» esan eta bere egoerari buruzko gogoeta egitera gonbidatu zuenean. Halaxe esan zuen Iturriagak:

Filologia ikasi nuen  
eta neukan horren klaru  
sei hilabete egina nintzen  
euskaltegiaren kargu  
orain Garzonek gure ametsak  
izorratzen hor dihardu  
baina poztetokoa da hori dena  
konformatuko gara gu  
nik galdu dudana beste euskarak  
irabazi baldin badu

Oihane Enbeitak alaba gisa, eta Haritz Lopategik tabernari gisa, ongi bete zituzten euren paperak bertso traman zehar, pertsonaiei zukua atereaz. Ikusleek ere ongi bete zuten euren papera, opera bailitza kataloxak hartuta joan zenik izan baitzen.

### IKUSLEAK

Ikusleak ikusminez entzun zuten Egañaren narrazioa. Bertsolariek bezala, ongi jarraitu zioten istorioaren hariari.

## 'Zer da emakumeek gehien maite dutena?' bertso trama egin zen iragan larunbatean Gasteizen

Urtzi Urrutikoetxea / Gasteiz

Bernardo Atxagak egindako gidoiaren harian, amodiozko istorioa osatu zuten Jon Maiak, Igor Elortzak, Andoni Egañak eta Jon Sarasuak larunbatean Gasteizko Principal antzokian. Lapuebla de Labarkan egingo den "Araba Euskaraz" en kariaz antolatutako saioa izan zen, eta aretoa bete egin zen, eserlekuetan hutsune bat edo beste egonagatik. Istorioa harilkatzeko tarteak musikaz bete zituzten Julen Pinedok, Josu Zabalak, Bingen Mendizabalek, Naiara Eizagirrek, Anabel Arregik eta Alex Ruiz de Azuak.

HASIERAN adierazi zuen Bernardo Atxagak bertso tramaren gaia: maitasuna. Eta horren idazgai unibertsalaren atzetik, iragan beharreko mailak zehaztu zituen, amodioa igo -edo jaitsi- beharreko eskailera batekin erkatuz. Istorioan zehar, eskailera mailak igotzen joan ziren bertsolariak.

Hiru gizonezko aurkeztu zituen Atxagak: Martin Igor Elortza zen, Zaccari Jon Maia eta Imanol Andoni Egaña. Hirurek ere emakume bera desio zuten: Margarita. Jon Sarasua, alegia. Eta eskaileren metafora hizpide hartuta banan-banan kokatuz joan ziren oholtzara igotzeko mailetan, betiere Margaritari maitasuna aitortu beharrean. Eta hurbildu ahala bihotza alaitzen zien miresleei, denei gauza bera esanez amaitzen zuela:

Margarita naiz ta sentitzen dut  
zuku bat behar dudala  
nere lorea desostatzen da  
zu gogoan zaitudala

Bitxirik onenak, tabernan

Herriko tabernara zuzendu zituen Bernardo Atxagak bertsolariak hurrena. Hiru maiteminduak elkarrekin koplatan egokitu zituen, nork bere maitearen ezintasunak kantatuz, emakume berbera zela ohartu ezinik. Atzetik Jon Sarasua bera etorri zen eta txikian hasi ziren bertsoan. Hiruren bihotzeko zen emakume haren haritik saioko bertsorik onenentsuenak irten ziren. "Nik ez nuke izan nahi laranja herena" amaitu zuen Imanol-Andoni Egañak, eta Margarita-Jon Sarasuak honela erantzun zion:

... laranja zer dan ere  
ez duzu entenditu  
nere laranja erdiak  
hiru atal ditu

Eta Jon Maiak bikain biribildu zuen Egañak atera eta Sarasuak jarraitutako ideia:

Laranja(re)n eredia  
nere modukua  
hauek dute azala  
eta nik zukua

argaritak atzetik, istorioaren muina izango zenera bidali zituen hiru maitaleak, hau da, bertso tramaren izenburuak zioen gisan emakumeek munduan gehien zer maite duten jakiteko egun bakarreko epea eman zien.

Galderaren erantzuna aurkitu ezinik

Ilunabarrean egokitu zituen kontalariak istorioko pertsonaiak. Hasteko, erietxera bidali zituen banaka hiru bertsolariak. Igor Elortza-Martin haur jai berrien sailera igorri zuen, eta ninietako baten amarekin paratu zuen. Ama, noski, Sarasua izan zen. Ostean, Maia-Zaccarik bizkarrezurra hautsita zuen atso bat aurkitu zuen erietxe berean, eta zelan maitatu honelako era ederrean erantzun zion Sarasua atsoak:

... baina maitasunen bat  
datorkizunean  
poxpoloa ez bota  
itzaltzen denean

Erietxe berera Imanol bidalita, moja batekin paratu zuen. Inguruko auzo batera ere eraman zituen maitaleak Atxagak, baina Elortzak eta Maiak soilik kantatu zuten, bestetako neska batekin eta emakumezko ertzain batekin egokitu ostean. Euskal Herriko egunerokotasunera

gehiago hurbildu ziren halabeharrez. Amaierarantz hurbilduta, bakarka ipini zituen hausnartzen Atxagak, komisariatik Zaccari atera ostean, haraino bidali baitzuen Jon Sarasua ertzainak. Luzimendurako azken tartea ere berea izan zuen Sarasuak, hasierako Margaritaren paperera itzulita. Hiru maitaleen artean bat aukeratu behar zuen, eta bidenabar emakumeek gehien maite dutena zer den argitu. Hona azken habanera:

Baten atzetik korrika  
ez naiz itsu aterako.  
Dexente maiteko ditut  
zahar, gazte, gizen, plako  
neure buruaren jabe  
maitatuko nautelako

-